

I. MARGOLARI GAZTEEN KANPOKO LEHIAKETA

BARRIKAKO UDALAK, I. MARGOLARI GAZTEEN KANPOKO LEHIAKETARAKO deialdia egiten du, ondorengo arauen arabera:

OINARRIAK

1.- PARTEHARTZAILEAK: Lehiaketan honetan 0 eta 17 urte bitarteko pertsonak parte hartu dezakete, haur, nerabe zein gazteak.

2.- GAIA: “Barrikako Udalerria” izango da lanerako gaia, udalerritik bertatik begiratuta. Partehartzaileek margo-lan bat soilik aurkeztu ahal izango dute.

3.- TEKNIKAK ETA FORMATOA: D eta E kategorietan, euskarri gogorrean eta bastidorean aurkeztu beharko da lana, eta teknika librea izango da.

4.- GARAPENA: Lanak kanpoan egin beharko dira, margozteko emandako denboran. **2013ko EKAINAREN 16an GOIZEKO 9:00etatik 17:30ak ARTE.** Ordu horretan itxi egingo da lanak emateko epea. Partehartzaileek euren lana sinadurarik gabe aurkeztu behar izango dute, aurrez euskarrian sigilua emanda.

Zigilua jartzea Udaletxeko beheko solairuan gauzatuko da goizeko 9:00etatik 10:30ak arte, lehiaketaren egun berean eta lanak jasotzeko ordutegia arratsaldeko 16:30etatik 17:30ak arte izango da.

5.- EPAMAHAI: Lanik onenak aukeratuko ditu Arte Ederrekin zerikusia daukaten pertsonak osatutako epamahiak. Epaitza apelaezina izango da eta aurkezturiko obrek gutxienezko kalitatea eta maila artistikoa ez dutela irizten baldin bada, sariren bat hutsik deklaratu daiteke.

6.- ERABAKIA: Epaia **2013ko ekainaren 23an agerikoa egingo da,** Jon Deuna jaietan zehar eta beste lehiaketetako sariekin batera.

7.- SARIAK: Kategoria bakoitzean ondorengo sariak emango dira:

A KATEGORIA, 6 urte arte

1. Margozteko tresnak.
2. Margozteko tresnak.
3. Margozteko tresnak.

B KATEGORIA, 7-8-9 urte

1. Margozteko tresnak.
2. Margozteko tresnak.
3. Margozteko tresnak.

D KATEGORIA, 10-11-12 urte

1. Margozteko tresnak.
2. Margozteko tresnak.
3. Margozteko tresnak.

E KATEGORIA, 13-17 urte

1. Margozteko tresnak.
2. Margozteko tresnak.
3. Margozteko tresnak.

8.- LANEN JABETZA: Lan sarituak aurrerantzean Barrikako Udalaren jabetzakoak izango dira. Udalak horiek erakutsi, kopiatu eta argitaratu ahal izango ditu eta egileek ez dute autore-eskubiderik izango. Saritutako lanak Udalaren kultur ondarrera bilduko dira.

9.- ERAKUSKETA: Lehiaketan parte hartu duten lanekin erakusketa antolatuko da, **2013ko ekainaren 21etik 23ra arte** Udaletxeko beheko solairuan.

10.- LANEN ITZULKETA: Saritu barik gelditu diren lanak jaso ahal izango dira, sari banaketaren ostean eta ondorengo 15 egunetan zehar. Epe horren barruan jasotzen ez diren lanak udalaren jabetzakoak izango dira.

11.- OHARRAK: Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak oso-osorik onartzea dakar.